

## **ZUMAIAKO UDALA**

## **GIPUZKOAKO PROBINTZIA**

### **2006KO UZTAILAREN HOGEITAZAZPIAN UDAL PLENOAK EGINDAKO OHIKO BATZARRALDIKO AKTA.**

Zumaiako hirian, bi mila eta seiko uztailaren hogeitazazpian, arratsaldeko seiretan, Udaletxe honetako Biltzar Aretoan (Foronda Kultur Etxean), Udal Plenoa eratu da, ohiko batzarraldia egiteko asmoz, aurrez ezarritako eguneko aztergaiari jarraituz. Garaiz eta behar bezala deituta, korporazioko kide hauek bertaratu dira:

#### **LEHENDAKARITZA.-**

Maria Eugenia ARRIZABALAGA OLAIZOLA andrea.

#### **ZINEGOTZIAK.-**

Asier ESNAL ALBIZU jauna.  
Manuel ZUBIA ARTABE jauna.  
Lide AMILIBIA BERGARETXE andrea.  
Mikel OLAIZOLA ELOSUA jauna.  
Andoni ETXANIZ OSA jauna.  
Joseba Josu ASPIAZU AZKARRAGA jauna.  
Abel YEREGUI SASIAIN jauna.  
Emiliano CABAÑAS GONZALEZ jauna.  
Paloma HEREDERO NEGREDO andrea.  
Cristina FORCADA UNANUE andrea.

#### **IDAZKARIA.-**

Miren ETXEZARRETA GARMENDIA.

### **1.- AURREKO BILERETAKO AKTEN ONARPENA BIDEZKO BADA: 2006-05-25; 2006-05-28 ETA 2006-06-28**

Alkate Lehendakari andereak bilera eratutzat eman ondoren, onarpenerako aurkeztutako aktei buruz, korporazioko kideren batek, zuzenketarik egin nahi duen galdetu du.

IZUSTARRI Taldeko Joseba Josu Aspiazu zinegotziak, maiatzak 25eko aktan, euskarazko 11. orrian eta gaztelerazko 42. orrialdean, kreditu aldaketari buruzko puntuan,

Izustarrik botuaren motibazioa azaltzen duen parrafoan, jaso ez den aipamena jasotzea eskatzen du: Kreditu aldaketako partida gehienekin ados daudela, baina partida horiek abilitatzeko formarekin ez daudela ados.

Akta berdinean, eta puntu berdinean, euskarazko 14. orrialdean eta gaztelerazko 46. orrialdean zehaztu behar da San Juan Egoitzako Kreditu aldaketa ere aurrekonturik ez dagoelako onartzen dela.

Akta berdinean euskarazko 27. orrialdean eta gaztelerazko 59. orrialdean, Udaltzari buruzko puntuan IZUSTARRI-k ondokoa adierazi zuela eta zentzu horretan idazketa egokitzea eskatzen du: Udaltzaren aurka bozkatuko dutela Udaletxean ordezkariak sindikalik ez daukatenak sinatu dutelako (CC.OO eta UGT) eta ordezkariak sindikala daukanak, (LAB), ez.

Azkenik Garan argitaratutako artikuloa hitzez hitz jasotzeko eskatzen du.

### **La Ilegalizacion, una bomba de relojería.**

Hace tres años se celebraron las primeras elecciones bajo la aplicación de la Ley de Partidos que ilegalizaba a Batasuna. Las plataformas locales de la izquierda abertzale se constituyeron en la segunda fuerza de Euskal Herria en número de concejales. De acuerdo a las papeletas, obtuvieron 579 ediles y fueron las más votadas en un total de 21 localidades. Sin embargo, la aplicación del *apartheid* político hizo que unos cuatrocientos de esos concejales fueran "anulados". Se dio el agravante de que esos puestos no quedaron vacíos. Los ocuparon personas que no tenían el respaldo de la soberanía popular sino el de una ley antidemocrática. Llama la atención que, -salvo honrosas excepciones personales- ninguna que las formaciones que verbalmente criticaban la Ley de Partidos tuvo empacho alguno en aprovecharse de la conculcación de derechos que denunciaban para engordar su bolsa de cargos, dando así carta de naturaleza a un estado de excepción que todavía hoy se mantiene a pesar de existir mecanismos legales para corregirlo.

Pero hace tres años comenzó también un movimiento de fondo en la política vasca. Cerca de 170.000 personas optaron por una papeleta que sabían que iba a ser legalmente anulada. Un acto masivo de insumisión, inaudito en Europa, que da la medida de la firmeza y compromiso político social de Euskal Herria de un importante sector que podrá ser proscrito legalmente pero no anulado. Esos casi 170.000 votos anulados anunciaron la derrota de la Ley de Partidos y de la estrategia represiva del Pacto PP-PSOE incluso a los ojos de algunos de sus principales impulsores. Pero, además aquella demostración de arraigo está en el inicio de la reflexión que llevó a la izquierda abertzale a la declaración de Anoeta y, con su desarrollo, a la situación actual.

Pese a estar políticamente superada y socialmente fuera de lugar, la estrategia de ilegalización diseñada por el Pacto PP-PSOE sigue amnitiéndose todavía vigente y supone un enorme lastre para un proceso de paz y normalización democrática que no acaba de despegar como debiera. Un partido político no puede trabajar si hasta la rueda de prensa en la que presenta su delegación para una mesa de resolución del conflicto es considerada delictiva. Es tarea del ejecutivo de Jose Luis Rodríguez Zapatero desactivar esa bomba de relojería. Que nadie apele a la aplicación del Estado de

Derecho. También el *apartheid* era legal en Sudáfrica, pero eso no significa que fuera justo ni conforme a las normas básicas del Derecho.

Alkateak maiatzak 25eko aktan euskarazko 12. orrialdean eta gaztelerazko 43. orrialdean jaso ez den aipamena jasotzea eskatzen du : negoziaketak egon zirela, gaia bi batzordetan aztertu zela. Batzorde hauetan PSOE renaz salbu, ez zen proposamenik aurkeztu.

Eskari galderen atalean Alkateak Orfeoiaren ekitaldirako gonbidapena luzatzen duela jasotzen da, baina esaldi solte gisa, eta aurreko textuarekin lotura egokiago batez bateratu dadin eskatzen du.

PSOE-ko zinegotziak dio, maiatzak 25eko aktan 51. Orrialdean, Paola-ri buruzko mozioaren atalean, zera jasotzen dela, PSOE bi zinegotziz osatzen dela, baina iritzi eta ahots bakarra dutela. Ez da zuzena. PSOE-ko bi zinegotziak ez daukate iritzi berdina, baina udal talde politiko bezala ahots bakarra dute.

Zuzenketa edo emendakin gehiagorik aurkezten ez denez, bozketa eginda, batzordekideek aho batez onartu dituzte 2006-05-25, 2006-05-28 eta 2006-06-28ko aktak, azalduko aipamenak kontuan izanik.

## **2.- 2005EKO KONTU OROKORRAREN ONARPENA, BIDEZ BADA.**

Hazienda Batzordeko Lehendakariak, Kontu Orokorrari aplikagarria den legedia, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 62 eta 63 atalak direla dio, Erakunde Lokaletako Aurrekontuei buruzkoak.

Kontu Orokorrak ekitaldian zehar burutu diren aurrekontu-eragiketa guztiak, independenteak eta auxiliarrak, ondarezkoak eta diruzaintzakoak jasotzen ditu.

Udal Entitateak, aurrekontuen likidaziotik aparte, Kontu Orokorra egin beharko dute eta ondorengo hauek osatuko dute: Entitate berarenak, bere Organismo Autonomoenak eta Sozietate Publikoenak, beren kapital sozialean, %50etik gorako partaidetza dutenean. Kontu Orokor honek, bai Udaletxeari bai Organismo Autonomoei dagokionean, ondoko zati hauek izango ditu:

- 1.- Aurrez onartutako Aurrekontuaren likidazioa.
- 2.- Egoera balantzea, ekitaldiaren itxiera egunean Ondarearen osaera eta egoera adierazten duena.
- 3.- Galdu-Irabazien kontua, ekitaldiaren emaitzak azaltzen dituen ekonomia eta ondarearen ikuspuntutik.
- 4.- Ekitaldiaren txosten bat, urteko finantzaketa taula eta zorraren egoerarekin.

Kontu Orokorrean parte hartzen duten Sozietate Publikoak, hiru azkenengo dokumentoak aurkeztu beharko dituzte, hau da, egoera balantzea, galdu-irabazien kontua eta txostena.

Alderdieri luzaturiko hitz txandan IZUSTARRI Taldetik zera adierazten da, uztailearen 11-an egindako Hazienda Batzordeko bileran, aktan jasotzen den baino eztabaida gehiago izan zela.

Zera gaineratzen dute aurka bozkatuko dutela, ondorengo arrazoi hauengatik:

- Kontu orokorra aurrez onartutako aurrekontuaren exekuzioa da, edo behintzat, horrela izan beharko litzateke. Guk, 2005eko aurrekontuak onartu ez genituenez ( bere garaian enmendakinak aurkeztu genituen arrazoiak esplikatzeko ), kontu orokorra ezin dugu onartu guk eskatutako ezer ere ez delako sartu kontu horietan.
- Bestaldetik, aurrekontuaren exekuzioa izan beharko litzatekeena ez da horrela, inondik inora. Eta hau demostratzeko, hona hemen bertatik ateratako datuak:

1.- Aurrekontua hasiera batean 9.420.350 €koa zen, baina urte bukaeran 11.415.858,29 €koa, hau da, ia bi miloi euroko diferentzia dago.

2.- Gastuak %75,50ean exekutatu dira, beste %25<sup>a</sup> falta da. Eta beste 2.476.200,33 €ere ez dira exekutatu eta 2006ko aurrekontura pasatu dira.

3.- Horren guztiaren ondorioa zera da: hasiera batean aurrekontua defizit batekin aurkeztu den arren, bukaeran superabit bihurtzen dela.

4.- Superabita honakoa izan da: 1.299.887 €(Udalan) + 152.996,96 ( egoitzan). Beraz, aurrekontua onartzen denetik bukaerako emaitzarekin konparatuz gero desbiazioa izugarria da.

- Kontabilitate patrimoniala hartzen badugu erreferentzia bezala, irabaziak askoz ere handiagoak dira: 3.135.298,48 € Udalan + 152.996,96 €(egoitzan) + 749.164,12 ( Zumaia Lantzenen). Gainera, azken hauetatik 244.227,50 €Foru Aldundiari ordaindu behar zaio.

- Beste datu batzuk ere honakoak dira:

1.- Aurreko urteetako irabaziak hor daude kontsolidatuta balantzean ( 26.298.337 €) eta ez dira herrian inbertitzen.

2.- Urte bukaeran honako gerakinak gelditu ziren inbertitu gabe: 3.426.868,28 € (Udalan) + 217.703,40 (egoitzan) + 103.318,49 ( musika patronatuan).

Hazienda Batzordeko Lehendakariak zera erantzuten du, IZUSTARRI-k planteatzen duen eztabaida askotan izan dutela Hazienda Batzordean. Gaur egun IZUSTARRIK oraindik "superabit"-aren mitoarekin jarraitzen du. Hori gutxi balitz gastuaren exekuzioa bajua dela mantentzen du.

Goazen bada atalka bi baieztapen hauei buelta ematea.

Superabitaren zergatia. Galdera: zergatik gaude superabitaren eszenatokian eta ez defizitarenean?

Gastuak.

Gastu korrientearen %98,05-a exekutatu dugu. Exekutatu gabe gelditu dena %1,85-a da.

Kapital operazioetan %48,44-a exekutatu da. Portzentai hau, ez da altuagoa izan hein garrantzitsu batean, Udaletxeko lanen atzerapenagatik.

Sarrerak.

Atal guztietan aurrikusiriko sarrerak baino altuagoak izan ditugu. Zeharkako zergatan obra baimenak direla eta igoera izan da. Tasa eta beste sarrera batzuetan, FOFIM-a dela eta igoera izan dugu.

Aipatu behar da Iharduera Ekonomikoen zergan, Zumaiako Udala, Gipuzkoako beste beste udalerriekiko aintzindari izan dela eta zerga behar bezala likidatzeko ahalegin berezi bat egin duela. Gauzak ongi egitearen ahalegin horrek, bere fruituak eman ditu eta kontzeptu horretan ere igoera izan dugu.

Sarrerak aurrikusten ditugunean era profesional eta tekniko batean egiten da, zuhurtziako irizpideak erabiliaz.

Guzti honek superabita sortzen du.

Goazen bigarrenarekin, Zergatik gastuaren exekuzio bajua ?

Operazio korrientearen %98,05-a exekutatu dugu, inbertsio errealena aldiz %52,74. Inbertsio errelak zatikatuaz adierazi, Udaletxeko lanen atala %29,62-an exekutatu dela, Haurreskola eta PERCO aldiz ez dira exekutatu, azaroan egin zirelako eta ez dira jasotzen.

% 52,74-ko portzentaiaren exekuzioa batez ere Udaletxeko lanen atzerapenari egotzi behar zaio.

Kapital transferentzietan dagokionez, igogailu eta fatxaden dirulaguntzak lanak amaitzean ordaintzen dira, 2006. urte haseran.

Izartu %26-ean exekutatu da.

Zumaia Lantzeneko kapital gehikuntza ezin izan da exekutatu.

Gainerako atalak % 99-an.

Beraz aurrekontuaren exekuzioa bikaina izan dela esan genezake, Udaletxeko lanen atzerapena, Haurreskola eta PERCO-az salbu.

Guzti honetatik ezin daiteke ondorioztatu kudeaketa txarra izan denik.

Ondoren bozketa egiten da,

Eskubidezko zinegotzi kopurua: 13

Bilerara bertaratuak: 11 (5 E.A.J, 2 IZUSTARRI, 1 E.A, 2 PSOE eta 1 EB-BERDEAK )

Aldeko botuak: 5 (5 EAJ).

Aurkako botuak: 2 (IZUSTARRI) .

Abstentzioak : 4 ( 2 PSOE, 1 EA eta 1 EB )

ERABAKI DA:

2.006eko Kontu Orokorra onartzea, Udaletxeko Kontuaz, San Juan Egoitzakoaz, Musika Patronatukoaz eta Zumaia Lantzen Elkartea Anonimokoaz osatzen dena, jendaurreko agerraldi epea iraganik eta inolako oharpenik aurkeztu ez delarik.

### **3.- SAN JUAN EGOITZA:UDALHITZ.**

Zera adierazten da Udaltxean egin zen eran San Jaun Egoitzan ere negoziazio mahaia osatu zela. Langileen aldetik ELA eta CC.OO agertu ziren. Nahiz eta azkenik

ELA.k ez zuen hitzarmena sinatu. Agiriaren edukiari dagokionez Udaletxekoaren berdina da.

IZUSTARRI k dio aurka bozkatuko dutela. San Juan Egoitzako langileen ordezkariak duen sindikatuak, sinatu ez duelako.

Ondoren bozketa egiten da,

Eskubidezko zinegotzi kopurua: 11

Bilerara bertaratuak: 11 (5 EAJ, 2 IZUSTARRI, 1 EA, 2 PSOE eta 1 EB-BERDEAK)

Aldeko botoak: 7 (5 EAJ eta 2 PSOE)

Aurkako botoak: 2 (IZUSTARRI)

Abstentzioak: 2 ( 1 EA eta 1 EB-BERDEAK).

ERABAKI DA:

San Juan Egoitzako lan-kontratadun langileen lan-baldintzen hitzarmen kolektiboa onartzea, Euskadiko Toki Erakundeetako Lan Harremanetarako Protokolo Markoarekin batera.

#### **4.- ESKARI GALDERAK**

Alkate-lehendakariak korporaziokideren batek eskakizunik edo galderarik egin nahi duen galdetu du.

Galde eskaerarik ez dagoenez, beste gairik izan gabe, arratsaldeko zazpirak direnean, Alkate andreak batzarraldia amaitutzat eman du, eta nik, idazkaria naizen aldetik, fede eman dut.

ALKATEA

IDAZKARIA